* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du Aurrekontua zein testuingurutan aurkezten duten azalpenak eman nahi dituela, baita ere zergatik aurrekontuarekin batera aurkezten duten Plan ekonomiko-finantziero bat. Uste du denak jabetuta daudela egoera ekonomikoa ez dela ona, ordenantza fiskalak aztertu zituztenean gai hau behin eta berriro atera zelako, eta berorren ondoriorik latzena da Udalaren diru-sarrerak gutxituko direla Foru Funtsa murriztuko delako. Horrela, behin eta berriz aipatu izan dute aurten 480.000 €ko jaitsiera izango dutela. Gainera, 2011ko aurreikuspenak bete ez direnez, horrek behartuko ditu 1.800.000 € itzultzea Aldundiari. Horrez gain, jakinarazi diete diru-kopuru hori ezin izango dutela atzeratu beste urte batzuetan egin izan duten bezala. Horri gehitu behar diote aurreko urteetan bete ez ziren aurreikuspenak itzultzen jarraitu behar dutela. Hau da, 2012an beste 1.700.000 € itzuli behar dituzte eta 2013an beste hainbeste. Hortaz, aurreikuspenak betetzen badira, 2014an geratuko lirateke Foru Funtsa kitatu eta beste perspektiba batean. Zentzu horretan uste dute aurrekontuak perspektiba batean jarri behar dituztela, eta hori egoera ezegonkor honen harira egiten dute. Zergatik? Ba, une honetan uste dute ariketa ekonomikoa hutsa egitea, kostuak etengabe jaitsi nahi izatea eta ez jartzea perspektiba batean arriskutsua izan daitekeela. Zentzu horretan eurentzat garrantzitsuena zen bide bat irudikatzea eta horren arabera ikustea non egin zitzaketen gastu-murrizketak, edo diru-sarreren kapitulua

* Interviene en euskera el alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) y manifiesta que desea explicar el contexto en el que se presenta el Presupuesto, así como los motivos para presentar el Plan economico-financiero juntamente con los presupuestos. Considera que todos son conscientes de que la situación económica no es buena, ya que este tema surgió constantemente cuando estudiaron las ordenanzas fiscales, siendo la peor consecuencia la minoración de los ingresos debido a que se ha reducido el Fondo Foral. En ese sentido han mencionado constantemente que este año tendrán una disminuicion de 480.000 euros. Además, como no se han cumplido las previsiones del ejercicio 2011, estarán obligados a devolver 1.800.000 euros a la Diputación Foral. Por otra parte, le han notificado que dicha cantidad de dinero no podrán retrasarla como se ha realizado en algún otro año. A eso tienen que añadir que tienen que seguir devolviendo las previsiones no cumplidas de años precedentes. En definitiva, en 2012 tienen que devolver 1.700.000 euros y en 2013 otro tanto. Por ello, si se cumplen las previsiones, en el año 2014 terminarían de pagar el Fondo Foral con lo cual tendrían una nueva posición. En ese sentido creen que los presupuestos tienen que tener otro enfoque, lo hacen así desde una situación inestable, y lo hacen así porque consideran que en estos momentos realizar unicamente un ejercicio económico con el deseo de minorar los mismos constantemente y no verlo desde otra perspectiva, puede ser peligroso. Considera



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

bera ere, hala nola inbertsioaren atala aztertu beharko zuketela. Ildo horri jarraiki, 2012-2015erako Plan Ekonomiko Finantziero bat aurkeztu dute. Berori jada talde politikoei eman diete eta ez da bozkatuko duten Plan bat, baizik eta orientabiderako balioko duena, hau da, Gobernu Talde honek etorkizunera begira planteatzen duen orientazio-instrumentu bat. Plan ekonomiko horrek bi garai desberdintzen ditu: 2012-13 urteak (Foru Funtsa itzultzeko epea amaitzen dena) eta 2014-15 urteak. Aurreikusten dute azken urte horietan arnasa hartzen hasiko direla eta inbertsio handiagoak egin ditzaketela, eta, agian jaitsi dituzten kostuak, batzuk behintzat, esaterako Pertsonalari buruzkoak, errekuperatu ditzaketela. Aurtengo aurrekontuari begira, berriz, lehen aitatu duen moduan arriskua dago aurrekontuak egiteko orduan, eta hori ariketa matematiko soil bat egitea eta edukiari ez erreparatzea litzateke, hots, itsu-itsuan murrizketak egitea eta herriak behar duen bidea ez egitea. Eurek uste dute oreka bat aurkitu dutela egoera txar hori eta bidea egitearen artean. Hori horrela, egoerak esaten die legegintzaldi honetan ez daudela obra handiak egiteko, baizik eta ideiak garatzeko, eta hurrengo urteetan idei horiek exekutatzeko aukera izango dutela. Horretarako mahai gainean jartzen dute Plan Estrategiko bat. Euren aburuz baliabide garrantzitsua izan daiteke herri honen etorkizunean bidea egiteko. Era berean,

que por dicho motivo es importante imaginarse un camino y en base al mismo ver dónde podrían afectuar una disminuicion de gastos, o el propio capítulo de ingresos, así como el apartado de inversiones. En esa trayectoría, para el periodo 2012-15 han presentado un Plan económico-financiero. El mismo ha sido ya distribuido a los grupos políticos y no lo va a someter a votación, sino que desea que sea un plan que sirva de orientación, esto es, un instrumento de orientación que el Equipo de Gobierno plantea de cara al futuro. Dicho plan diferencia dos etapas: la que abarca los años 2012-13 (año en que terminan la devolución del Fondo Foral) y los años 2014-15. Piensan que en el último periodo empezarán a respirar y que podrán efectuar más inversiones y, tal vez, alguno de los costes que han disminuido, por ejemplo los de personal, se podrán recuperar. En cuanto al presupuesto del año 2012, tal y como ha mencionado anteriormete existen riesgos a la hora de realizar presupuestos, que consisten en realizar únicamente un ejercicio matemático y no fijarse en el contenido, esto es, realizar a ciegas restricciones y no recorrer el camino que necesita el pueblo. Creen que han encontrado un equilibrio entre la mala situación y el camino que tienen que recorrer. Así, la situación les dice que en esta legislatura no están para grandes obras, sino para desarrollar ideas, ya que en los años venideros

mahai gainean jartzen dute Plan Orokorra. Euskaran inbertsioa handitu dute. Baita Ingurumenean ere, aurreko urteetan eginikoa oso txikia dela uste dutelako. Kulturan salto bat egiteko apustu irmoa egin dute, eta horretarako partida batean igoera nabarmena egin. Zerbitzu Soziala mantentzearen aldeko planteamendua egin dute. Gero —dio— alderdi guztiek zuzenketak aurkeztu dituzue eta, beroriek aztertu ostean, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV, O.E.Bilduren artean zuzenketa transakzional bat adostu zuten, bere iritziz, oso elementu interesgarriak jasotzen dituena. Osotara, iruditzen zaie garrantzitsua dela aurrekontuak aurrera

tendrán la oportunidad de ejecutarlas. Para ello, ponen encima de la mesa un Plan Estratégico. A su juicio, puede ser un instrumento válido para efectur el camino en el futuro de este pueblo. Asimismo, ponen encima de la mesa el Plan General. Además han incrementado la inversion en Euskara, así como en Medio Ambiente debido a que creen que lo efectuado en años precedentes ha sido escaso. En Cultura han hecho una apuesta para dar un salto firme, incrementando de forma notable la partida correspondiente. Planteaban mantener el gasto relativo a Servicios Sociales. Luego, una vez que todos los grupos hiciesen sus enmiendas, y tras

atera ahal izatea, aterako ez balituzte, hurrengo urteari begira, koiuntura ekonomikoa dela eta, arazo larri baten aurrean egongo liratekeelako. Eta halaber, interesantea ere iruditzen zaie beste alderdiek erakutsitako jarrera. Bukatzeko, aurkezpena egin duela uste duenez, beste alderdiei hitza ematen die.

estudiar las mismas, Errenteriako Ezkerra, EAJ/PNV y O.E.Bildu llegaron a un acuerdo —a su juicio importante— para realizar una transaccional. En definitiva, consideran importante aprobar los presupuestos, puesto que de lo contrario se encontrarían con un problema grave debido a la coyuntura económica. Finalmente desea destacar la actitud que han mostrado los demás partidos, y como considera que ha terminado con la presentación les da la palabra a los demás grupos.

* Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) esan du, argi dagoen moduan, aurrekontuen alde bozkatuko duela. Hori aho txikiarekin dio bera egiten aritu delako, eta handiagoarekin esaten du une hauetan egin litezkeen hoberenak direla uste duelako eta, batez ere, aurrekontu hauekin jendearen parte-hartzea eta udal talde politiko guztien proposamenak uztartzen saiatu direlako. Berak azken ekimen hau nabarmendu nahi du, bere iritziz interesgarria izan delako eta etorkizunean jarraipena ematea espero duelako, hau da, Gobernu Taldeak entzun, aintzat hartu eta akordioak bilatu ditu, baina era berean nabarmendu nahi du oposizioko taldeek, batez ere, EAJk eta PPk entzuteko, proposatzeko eta akordioak bilatzeko egin duten ahalegina. Bere aburuz ahalegin horiek gaur bozkatuko duten aurrekontuan jasota daude. Berak uler dezake norbaitek esatea Gobernu Taldeak egiten duen ahalegina gutxiengoan dagoelako egin duela, alabaina esan behar du hitz egiten ari denak aurreko urtean ildo bereko proposamen bat egin zuela eta ez zuela arrakastarik izan. Edonola ere, baieztatzen du berak eta BILDUk, horiek osatzen dutelako Gobernu Taldea, ahalegin bera egingo zuketela aurrekontua ateratzeko behar adina boto izanda ere. Hortaz, bada, orain egin dutena ez dute iraganeko zerbait izatea nahi, etorkizunekoa baizik, eta halaxe izatea espero du. Berak itxaro du eztabaidatzen ari diren aurrekontu-proiektu hori gerora elkarrekin bidea egiteko gonbidapena izatea. Bere irudiko aurrekontuak

* Interviene el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) manifestando que evidentemente va a votar a favor del presupuesto. Lo hace en una pequeña medida porque ha formado parte en su elaboración, y en mayor medida porque piensa que es el mejor presupuesto posible para el momento actual y fundamentalmente, porque es un presupuesto en el que se ha buscado la participación y el encaje de las propuestas del conjunto de los Grupos Municipales. Quiere resaltar esto último, cree que ha habido un ejercicio interesante que espera tenga prolongación hacia futuro, de escuchar, atender y buscar el acuerdo por parte del Equipo de Gobierno, pero también quiere reconocer el ejercicio de escuchar, proponer y buscar el acuerdo que han realizado los Grupos de la oposición, especialmente el PNV y el PP. El resultado de esa suma de esfuerzos tiene su reflejo en el presupuesto que hoy se somete a votación. Entiende que pueda haber personas que digan que este esfuerzo se realiza desde el Equipo de Gobierno en la medida de que están en minoría. Quien habla hizo una propuesta en la legislatura anterior y no tuvo fortuna. En todo caso quiere afirmar que en su caso, y está convencido que también en el caso de BILDU, que son los dos Grupos que forman el Equipo de Gobierno, harían el mismo esfuerzo aunque tuvieran por si mismos los votos necesarios para sacar el presupuesto adelante. Lo que se ha hecho en ese sentido, no tiene que ser solamente pasado sino que fundamentalmente



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ardatz nagusi bat du, eta hori 2025eko Errenteriako Plan Estrategikoa da, zeina Hiria Antolatzeko Plan Orokorrarekin batera, uste baitu ibiltzen hasteko bide ona izango dela, eta bide hori bertan dauden bost taldeen artean ez badute egiten, ez du zentzu gehiegirik izango. Horrela, uste du inork ez duela baztertuta sentitu behar, eta espero du egiteke duten lanaren aurrean inork ez bere burua baztertzea. Denek diote ziurtasunik gabeko garaiak bizi dituztela, batez ere ekonomiari dagokionez, eta, bere aburuz, bertan dauden inork ez du erantzun argi edo erabatekorik. Berak, bere aldetik, aurrekontu hauek logika sinesgarri batean kokatzen ditu, eta logika hori 2012-15 legegintzaldirako Plan ekonomiko-finantzieroak ematen dio. Horregatik, aurkeztu duten aurrekontu-proiektua ez da orri zurietan ezartzen diren zenbaki batuketa bat soilik, aurrekontu osoari ematen dion logika eta esplikazioa ere badelako. Gauzak zehazte aldera, berriz —hori berari dagokionez—, nabarmendu nahi du Udalaren Kirol Patronatuaren inguruan aurreko urtekoaren antzeko aurrekontua aurkezteko egiten den ahalegina. Edonola ere, uste du hori lortzeko arlo horretan mozketak egiteko tentalditik alde egin dutela, beste lekuetan mozketak egiten den lehenengo lekua, hain justu, kirola izaten delako. Halere, jakinarazi nahi du Patronatu horretan emango den ohiko gastuen igoera Beraun - Kaputxinoetako igerilekuak datorren ekainetik aurrera abian ipintzeak eragingo duela, baita ere orain artean Udaleko beste departamentuek kudeatzen zuten eskola-kirolak eta eskola-igeriketa saioek. Aitzitik, azalpen gehiago behar duela uste duelako, Mendi eta Ingurumen Sailaren gastu-igoera pittin bat gehixeago zehazten saiatuko da. Gauzak horrela, Alkateak ondo adierazi duen moduan, eta eztabaidan batere hasteko asmorik gabe, uste dute Departamentu honi, aurreko legegintzaldian helburuak erdiesteko baliabideak falta izan zaizkiola. Berak duen informazioaren arabera, Errenteriak 3.000 hektareetatik 1.800 hektarea lur ez urbanizagarri du, hau da, herriko lurzoruaren % 50

tiene que ser a futuro y espera que asi sea. Precisamente, piensa que el borrador de presupuesto que están discutiendo, invita a ese andar juntos. El presupuesto tiene a su entender un eje fundamental, que es el Plan Estratégico Errenteria 2025, que unido al replanteamiento del Plan General de Ordenación Urbana piensa que es un buen camino para andar y ese camino, o lo hacen entre los cinco Grupos presentes o en buena medida carecerá de sentido. En ese sentido, piensa que nadie se puede sentir excluído y espera que nadie se autoexcluya de ese trabajo que tienen por delante. Es un lugar común decir que viven tiempos de incertidumbre, especialmente en lo económico, y para esa incertidumbre piensa que ninguno de los presentes tiene una respuesta nítida o contundente. Por su parte se ha procurado situar estos presupuestos en una lógica creible y esa lógica la aporta el Plan Económico Financiero de la legislatura 2012-2015, por tanto el borrador de presupuesto que presentan no es solo una suma de números que se ponen negro sobre blanco en algunas hojas, sino que corresponde a una lógica y una explicación que dan sentido al conjunto del presupuesto. Yendo a lo concreto y en lo que a él respecta, en relación al Patronato Municipal de Deportes, señalar el esfuerzo que se hace en presentar un presupuesto similar al del ejercicio anterior y en todo caso, entiende que esa similitud indica que se han alejado de la tentación de recortar en ese campo, cuando lo que están viendo en otros lugares es que precisamente es el deporte uno de los sitios donde primero se tiende a recortar. Indicar que la subida que corresponde a éste Patronato viene motivada por los gastos corrientes que suponen la puesta en marcha de las piscinas de Beraun-Kaputxinos a partir del próximo mes de junio y la incorporación del deporte escolar y la natación escolar que hasta ahora se gestionaban en otros departamentos municipales. Va a entrar a detallar un poco más, porque cree que requiere más explicación el gasto de Medio Ambiente



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

baino gehiago lur ez urbanizagarria da. Euren ustez espazio hori Udalak zaindu behar du eta ildo horri jarraiki 100.000 euro jarriko dituzte lur horiek zaintzeko eta lurretik bizi diren pertsonei laguntzearren. Oro har, mendiei kasu gehiago egin nahi diete, baita Listorreta, Lau Haizeta eta Añarbeko aisia-guneei ere. Zentzu horretan Eusko Jaurlaritzaren IHOBE sozietatearen eskutik ingurumena berreskuratzeko lana egiteko asmoa dute. Aldi berean, biodibertsitate-arloan plan estrategikoa nabarmendu nahi du, besteak beste, ingurumen-helburuak zeintzuk diren kokatzen lagunduko dielako. Hori horrela, esan nahi du Errenteriako eskola-umeak biodibertsitate-lanak egiten ari direla Eskola Agenda 21 programaren bidez, eta bidezko deritzo Udalbatza honek betebehar horiek, halaber, betetzea. Bestalde, era berean, ezagutzera eman nahi du energia arloko plangintza, euren aburuz Udalbatza honek eremu horretan dezente hobetu behar duelako kontsumoa eta faktura murrizteko. Izan ere, 2010ean 800.000 euro gastatu zituzten energia-kontsumoan. Mendi eta Ingurumen Saileko partidak, halaber, helburu du jendearen parte-hartzea, Gobernu Talde honen helburu estrategikoa. Eta, haren ustez, Aholku Kontseilua eta bigarren Tokiko ekintza-plana 21 abian jartzeak bere eragina du legebiltzarrean ere. Amaitzeko, bere lehen mintzaldi honetan, ikuspuntu orokorrago batetik, esan nahi du aurrekontu-proiektu hau aukera bat izango dela egoera zail bati aurre egiteko, eta uste du proiektu horrek marrazten duela, Udal honek aldaketa zenbait eginda, jarraitu beharreko bidea, izan ere, 2012. urte zaila eta konplikatua izango delako, erreminta ona izango dela uste baitu. Azkenik, insistitu nahi du bide hori bertan dauden bost taldeen artean egin behar dutela, hain zuzen, bestela, ezin izango dutelako biderik egin.

y Montes. Como bien ha señalado el alcalde y sin intención por su parte de iniciar discusión alguna, consideran que a este Departamento, en la legislación anteior le han faltado los recursos oportunos para el desarrollo de sus objetivos. Si no maneja mal la información, Errenteria tiene 1.800 hectáreas de terreno no urbanizable sobre un total de 3.000 hectáreas, es decir, más del 50% del total de la superficie del pueblo corresponde a zona no urbanizable. Entienden que ese espacio requiere una atención y un cuidado por parte municipal y fruto de ello es que van a destinar 100.000 euros en atención y cuidado de la zona rural y a las personas que en ella viven. También quieren prestar una mayor atención a los montes en general y a las áreas de Listorreta, Lau Haizeta y Añarbe y así, de la mano de la sociedad del Gobierno Vasco IHOBE, van a proceder a realizar un trabajo de restauración ambiental. A la vez, también quiere señalar la planificación estratégica en biodiversidad que les ayudará a situar los objetivos ambientales en este terreno. Cabe decir que los escolares de Errenteria están haciendo durante todo este curso sus deberes en biodiversidad a través de la Agenda Escolar 21 y justo es que esta Corporación también haga esos deberes en el mismo terreno. Por otro lado, también quiere señalar la planificación prevista en el campo de la energía, porque entienden que esta Corporación tiene que mejorar sustancialmente en el terreno de la eficiencia energética con el fin de reducir el consumo y la factura, hay que decir que en 2010 se han gastado 800.000 euros en consumo de energía. Finalmente, la partida de Medio Ambiente y Montes tiene otro objetivo que es el de fomentar la participación ciudadana, que es objetivo estratégico de este Equipo de Gobierno, y entienden que la puesta en marcha del Consejo Asesor y la redacción del segundo Plan de Acción Local 21, 2012-2016, tiene su reflejo parlamentario. Para terminar su primera intervención y volviendo a un plano más general, decir que el proyecto de presupuestos tiene

que ser una oportunidad para afrontar una situación difícil y entienden que este proyecto dibuja un camino para llevar adelante una serie de cambios que este Ayuntamiento precisa y que, frente a un 2012 que se dibuja difícil y complicado, piensa que es una buena herramienta. Finalmente insistir en que este camino, o lo hacen entre los cinco Grupos allí presentes o no hay camino para hacer.

* Herzog jaunak (PP) esan du Gobernu Taldeak apaindura gutxiko eta onartzeko moduko aurrekontuak ekarri dituela, besteak beste, beroriek egungo egoerari eta bizi duten egoera ekonomikoari egokituak direlako. Bere iritziz, aldaketa partzialak egiteko proposamenak egitea ahalbidetu zietelako, abiapuntu ona izan dute. Eurek proposatu dituzten aldaketak itotzen ari zaien zorra murriztearren bideratuak izan dira, eta beroriek gehin-gehienak jasoak izan direnez, pozik daude eta ahalegin hori eskertzen dute. Euren irudiko hasieran aurkeztu zitzaizkien behin-behineko aurrekontuak Ferradas jaunak (Errenteriako Ezkerra) ordezkatzen duen ingurumen esparruko ideia partikularrei —beraienekin maiz bat ez datozenak— erantzuten zieten partidak dezente kargatuta zeuden. Izan ere, hasieran 155.000 euro —lehengo 26 milioi pezeta alajaina— zeuden hiru azterlan oso garestiak egiteko. Proiektu horiek, bere aburuz, nahiz ez izan lekuz kanpokoak, ez ziren batere aprobetxagarriak, eta oposizioak horiek dezente murriztea erdietsi du. Aurrekontu hauek gero sozial arloan hautsi-mautsi asko izan dituzte, eta puntu horiek sartu badira, EAJk bota duen pultsuagatik izan dira, eta eurena da merezimendua, gaineratu du. Hala ere, atal horretan adosturiko gizarte arloko diru-kopuruek, hein batean bederen, ez dute gehiegi aintzat hartu kalean bizi den drama, eta batez ere, ez dute jaso Peña andrea (EAJ/PNV) eskatzen aritu den jangela soziala. Aitzitik, ordea, 170.000 euro ipini dira garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko. Eurek, jakina, eragiketa horiekin ados daude, baina betiere tentu

* Interviene el Sr. Herzog (PP) manifestando que, el Equipo de Gobierno les trae unos presupuestos ciertamente austeros y por ello aceptables, en cuanto se ven adaptados a la situación actual de difucultades económicas que se vive. A su juicio representan un buen punto de partida que les ha permitido entrar a proponer modificaciones parciales. Sus modificaciones han ido dirigidas a contener el gasto para reducir la deuda viva que les ahoga y han de decir que están satisfechos al haber sido incluídas sus propuestas en significada mayoría, reconociendo su esfuerzo. Los presupuestos provisionales que les habían sido facilitados inicialmente, estaban bastante recargados en aquellas partidas que responden a la particular idea del ámbito medioambiental que viene sosteniendo el Sr. Ferradás (Errenteriako Ezkerra) y que no coinciden siempre con las que ellos sostienen. De partida destinaban nada menos que 155.000 euros, 26 millones de pesetas, a la redacción de tres estudios carísimos y a su juicio poco útiles, aunque no fuera de lugar, partidas que han logrado reducir sustancialmente desde la oposición. Estos presupuestos provisionales han sido después objeto de intensas transacciones en el capítulo social, medidas tomadas en pulso y mérito del PNV. Si bien, las cantidades dedicadas a lo social que han sido transaccionadas pasan en alguna medida por alto los dramas que se viven en nuestras calles y en particular no habilitan partida para el comedor social que ha venido pidiendo la Sra. Peña (EAJ/PNV). Se destinan por el contrario 170.000 euros a la cooperación con países en



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

handiarekin lehen eman izan diren kasuak berriro gerta ez daitezen, alegia, Somoto eta antzeko eskandaluek oso gertutik zainduz nora bidali eta nork hartzen duenen artean irregulartasunik eman ez dadin. Horrez gain, uste du nabarmentzekoa dela alderdi Sozialistak bere proposamenak defendatu dituen modua. Alabaina, bere aburuz, alderdi horrek zuzenketen bidez proposatzen zuena ez zitekeen burutu, zerga bidez enpresari txikiak eta enplegatuak punituz baino, eta horiek zerga eta tasa gehiagorekin kargatuz gero, sektore horiek erabat desanimatuko Lirateke, eta ondorioz, baita ustez prestaturiko jendearentzako enpleguaren sorketa bera ere. Aitzitik, berak uste du lanbide-sorketa hori eman zedin trabak baino ez lituzke eragingo zerga eta tasa gehitze horrek. Euren aburuz Sozialistak hemen eskatzen ari direna burutzeko beste leku batzuk daude, eta beste aurrekontu batzuen kontura egin behar dira. Hala eta guztiz ere, esan behar du sostengatzen dituela PSEk zuzenketen bidez Miauka elkartearekin, katu-basen ugaritzea saihestearren eta Gipuzkoako Abereak eta Landareak Babesteko Elkartearekin Udalak hitzarmena egiteko proposamena. Edonola ere, euren zuzenketak hitzartu eta aurrekontuan behin betiko partidak sartu dituztenez, Gobernu Taldeari eskatzen diete 2012. urtean zehar bi eskari horiei sarrera emateko, gaur han onartzen dutenetik at, hain zuzen alderdi Sozialistaren ekarpenak sartu ahal izateko. Bestalde, beharbada —dio—, Ingurumeneko erdi mailako teknikariari bideratu ez dieten diruarekin —hasiera hasieratik bertan dauden guztiek akordatu dutelako— Agenda 21 partida nolabait igo zezaketen. Alderdi Popularrak, ikusi duten moduan, lehentasuna eman zion, eta gizartea nola dagoen ikusita are gehiago, jangela soziala abian jartzeari, eta uste dute beharrezko diru-kopurua murriztu beharko litzakeela nazioartera bideratzen den partidatik. Eskaera hau, bere iritziz, oraingo egoeran oinarri-oinarrizkoa da, Gobernu Taldeak aintzat hartu ez duena, eta ondorioz, Errenteriako behartsuenak itxaropenik gabe

desarrollo, operación con la que evidentemente están de acuerdo, pero con la prevención de distintos casos como se han venido dando, de irregularidades en el destino de las partidas, viniendo a colación el escándalo de Somoto y otros, que les aconsejan vigilar estrechamente destinos y destinatarios. Cabe resaltar la intensidad con la que el Partido Socialista ha defendido sus propuestas. Lo que propone este Partido en sus enmiendas no podía hacerse sino castigando con más impuestos a los pequeños empresarios, teóricos empleadores a los que justo les faltaba otra cosa que cargar con impuestos y tasas para que se acaben desanimando de generar ese empleo que se proclamaba como fin para unos supuestos beneficiarios de la formación, que por el contrario no verían sino entorpecidas, a su juicio, sus salidas laborales. Creen que hay otras instancias que deben llevar a cabo lo que piden aquí los Socialistas, y a cargo de otros presupuestos. Sin embargo, no quiere dejar pasar la ocasión de manifestar su apoyo a las enmiendas que el PSE dedicaba a la asociación Miauka con el fin de evitar la proliferación de gatos asilvestrados y a la suscripción del Ayuntamiento en la Sociedad Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa, como ellos proponen. Al tener conveniado y cerrado el presupuesto, habiendo tenido en cuenta sus enmiendas en las partidas definitivas, no le queda sino solicitar del Equipo de Gobierno que en el ejercicio corriente de 2012 dé curso a ambas ambiciones a partir de una administración juiciosa de lo que hoy acuerdan en este acto, para poder incluir esas aportaciones del Partido Socialista. Quizás con el dinero que saben que no va a dedicarse al técnico medio de Medio Ambiente, como ya han acordado de partida todos los presentes, podría incrementarse la Agenda 21 en alguna medida. Por cuanto han visto, les parecía prioritario desde el Partido Popular y ante la perspectiva social que se invoca, reducir la partida internacional en la cantidad que fuese necesaria para poner en marcha el comedor social. Este ruego, esencial a su juicio en la actual circunstancia, no les



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

utzi dituena. Eurek horregatik ez dute aurrekontuen aldeko bozkarik emango, baina, era berean, ez dute trabarik ere ipiniko, eta ondorioz, ez dute aurka egiteko asmorik.

ha sido atendido desde el Equipo de Gobierno, dejando sin esperanza a habitantes de Errenteria necesitados. Esta es la razón por la que no van a apoyar con su voto los presupuestos, aunque tampoco van a poner palos en las ruedas y no se van a oponer.

* Peña andreak (EAJ/PNV) esan du aurrekontuak jorratzen hasi aurretik gogoeta bat egin zutela. Kontua da une hauetan —ez soilik hauetan, baizik eta krisia ekonomiko garaian— ihes egin beharko luketela osoko zuzenketa egitetik, hain zuzen horrek, igual, negoziazioa eragotziko zukeelako, eta hobea zuketela zuzenketa partzialak egitea eta aurrekontu-proiektua ahal den neurrian hobetzea. Horrela, euren aburuz, batez ere bi puntu ziren hobetu beharrekoak: lehenengoa, gastu soziala, alegia, uste zuten krisia ekonomiko luzea eta egonkorrean prestazio sozialak herriko herritar askorentzako amaituko zirela. Hori horrela, ez zen lehengo gastu sozialari eutsi bakarrik egin behar, aitzitik, Udalak arlo horretan ahalegin guztiak egin beharko lituzkeela uste zuten. Bestalde, enpleguaren sustapena, hots, enplegu-programak esangura handia izan behar zuten aurrekontuetan, batez ere kontuan izanik Enplegu Tailerraren programa ez bazen aurrera ateratzen, hor 40 langile gutxiago izango direlako. Hori gastua igotzeari dagokionean, eta gastua eusteari dagokionez, berriz, eurek publizitateari eta azterlanak egiteko bideraturiko partidei buruzko irakurketa egiten zuten, eta horiek, jakinda nolako koiuntura ekonomikoan dauden, gehiegizkoak iruditzen zitzaizkien, eta hortaz pentsatu zuten horiek zuzenketen bidez ahalik eta gehien estutu behar zirela. Azterketa hau egin ostean, Udalbatzari jakinarazi nahi dio EAJren jarrera, une oroz, eraikitzailea izan dela; ez dutela makilak errudetan sartu nahi izan, aitzitik aurrekontua hobetu nahi izan dute. Eurek hainbat zuzenketa egin zituzten, zeinak azkenean Gobernu Taldea eta EAJren arteko negoziaketak izan ostean, bat bakarrean bihurtu baitute. Horrela, egoitzetan

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que cuando se planteaban abordar el estudio del presupuesto, hacían una reflexión previa. Se trataba de que en este momento, no exclusivamente, pero sí sobre todo de crisis económica, debieran huir de hacer enmiendas a la totalidad que hubieran quizás imposibilitado una negociación, y centrarse mediante enmiendas parciales en mejorar en lo posible el proyecto de presupuesto que se les presentaba. Pensaron que fundamentalmente había dos aspectos que necesitaban una mejora. En primer lugar el gasto social, creían que en la situación de crisis económica, sostenida además en el tiempo, las prestaciones sociales iban a ver su final para muchos ciudadanos y ciudadanas del municipio, con lo cual no solo había que mantener el gasto social, sino que era donde había que volcar los esfuerzos municipales. Por otro lado el fomento del empleo, los programas de empleo debían tener también una posición relevante dentro del conjunto del presupuesto, sobre todo si tenían en cuenta que si no salía el programa de Taller de Empleo, son del orden de 40 empleos menos los que se fomentan. Esto en lo relativo a la necesidad de incremento de gasto, y en cuanto a la contención del gasto hacían una lectura en cuanto a las partidas destinadas a estudios y publicidad, pero sobre todo a estudios, las consideraban excesivas en la coyuntura en la que están y creian que había que ajustarlas en lo posible mediante enmiendas. Después de hacer este análisis, quiere transmitir en el Pleno que también la postura del PNV ha sido en todo momento constructiva, que no ha querido poner palos en la rueda y que pecisamente ha querido mejorar el



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

egoteko zuzkidura handitu dute, bere iritziz, inork zalantzan ipini ez dezakeen kontua da, batik bat behar handia dagoelako, halakoxeak direlako itxaron-zerrendak eta, batez ere, herri honetan, bereziki, ematen ari den biztanleriaren zahartzea dela eta, gaineratu du. Zentzu honetan esan behar dute arlo hau Gobernu Taldeak oso-osorik onartu duela. Bestalde, gobernukoek uste zuten FEMP-tik atera behar zela, EUDELekoak garenez gastua bikoizten zelako. Eurek aurrekontuan murrizketa hori egin aurretik irteera Udalbatzarrean onartu behar zela esan zieten, eta hortaz, konpromiso hori hartu zutenez, ez dute horren inguruan ezer esatekorik. Horrez gain, informazio, balorazio eta orientaziorako ematen diren laguntza sozialak —saski-nahaski guztiak—, era berean, transakzionaturiko zuzenketa baten bidez igoak izan dira eta osotasunean onartuak. Eurek, halaber, bigarren “Acoge” proiektu bat sortzearen aldekoak ziren, denek dakizuen moduan oraindik eguneko zentro batera edo egoitza batera joateko egoeran ez daudenentzat, baina bai familia-egituragatik kontrol eta jarraipen baten behar dutenentzat direla. Horiek goiz osoan jarduerak egiten aritzen dira, eta Errenterian bat baino ez dagoenez, hain zuzen Beraungo Erretiratuen Elkartean kokaturikoa, eurek Errenteriako beheko aldean beste bat jartzea planteatzen zuten, eta hori ere onartu zaie. Babesturiko enplegu sozialari buruzko partida, era berean, igo dute. Gainera, enplegua sustatzeko partidarekin akordio batera iritsi dira. Ingurumeneko goi mailako teknikari-plazari dagokionez, berriz, eurek ez zuten esaten plaza horrek izan behar ez zuenik, baina eskatzen zuten koexistitu behar zuela, eta beraz, ulertzen zuten berorren sorrera atzeratu zitekeela. Horregatik, konpromisoa hartu dute aurrekontu-kontsignazioa aldi berean ez exekutatzeko. Bere aburuz, aurten larrialdiko laguntzek igoera beharko dute, eta halaxe egin dute. Era berean, publizitatean dirua murriztu dute. Inbertsioei dagokionez, aldiz, EAJk ikastetxeak

presupuesto. Presentaban una serie de enmiendas que finalmente han tenido como resultado la transacción entre el Equipo de Gobierno y el PNV de una única enmienda. Se incrementa la dotación en estancias en residencias, cree que es un aspecto que nadie puede dudar debido a la gran necesidad que hay, las listas de espera y sobre todo el envejecimiento de la población que se da en concreto en este municipio, y hay que decir que este aspecto ha sido totalmente admitido por el Equipo de Gobierno. Por otro lado, ellos consideraban que había que salir de la FEMP, porque era un gasto duplicado al pertenecer ya a EUDEL y se les ha explicado que previo a hacer esa disminución en el presupuesto había que aprobarlo en Pleno, con lo cual han alcanzado este compromiso y no tienen nada que objetar. Las ayudas sociales en información, valoración y orientación, que son un poco el cajón desastre, también se han visto incrementadas mediante la enmienda que han transaccionado, aceptada en su totalidad. Apostaban también por la creación de un segundo proyecto Acoge, que como todos saben está destinado a esas personas que todavía no están en situación de acudir a un centro de día o a una residencia, pero que debido a la estructura familiar sí que requieren de un control y de un seguimiento. Se realizan actividades durante toda la mañana, solo hay uno en Errenteria, que está situado en el Club de Jubilados de Beraun, planteaban poner otro en la zona baja de Errenteria, también ha sido admitido. La partida de empleo social protegido también se ha incrementado, además ha habido una transacción con la partida de promoción de empleo que planteaban. En cuanto a la plaza de técnico superior de medio ambiente, no negaban la necesidad de la existencia de esa plaza, pero sí que solicitaban que no coexistieran y entendían, por tanto, que se podría diferir un poco en el tiempo la creación de la misma y se ha llegado al compromiso de que no se va a ejecutar la consignación presupuestaria simultáneamente. Cree



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

berritzeko partida, 108.000 euro, % 60/% 40an finantzatuta, igotzearen aldeko apustua egin zuen, baita Beraungo Erretiratuen Elkartean obra txiki bat egiteko ere. Gainera, Berdintasunerako planean aurreikusirik dagoen moduan emakumeentzat debekaturiko mapa bat egitea onartu dute. Orotara, zuzenketa transakzional bat bakarrean doiketa guztiak sartzeko ahaleginak eginda, uste du ondo atera direla zorra 41.000 euro jaistea lortu dutelako, zifra hori ez delarik arbuiagarria, nahiz eta Udalak ez duen kezkatzeko moduko zorrarik. Beraz, lehen zioen bezala, uste du aurrekontu-proiektuari euren ekarpena egin diotela, nahiz eta bidean gauza zenbait utzi behar izan dituzten. ZoritxaPPko lagunak aurreratzen zuenarrez, eurek planteatzen zuten jangela soziala aurrera atera gabe geratu da,

que las ayudas de emergencia social van a necesitar un incremento en este año y asi se ha hecho. Se ha reducido también dinero en publicidad. En lo relativo a inversiones, desde el PNV han apostado por incrementar en 108.000 euros la partida destinada a reformas en centros escolares financiada al 60%/40%, una pequeña obra en el Club de Jubilados de Beraun, y también se ha aprobado la elaboración del mapa de la ciudad prohibida para las mujeres, que está contemplado en el plan de igualdad. Después de hacer todos los ajustes en una enmienda transaccional única, cree que ha salido bien porque se baja el endeudamiento en 41.000 euros, que no es una cifra desdeñable aunque no sea preocupante el endeudamiento que tiene el Ayuntamiento. Como decía, cree que han hecho su aportación al nuevo

enplegu-plangintzetarakoa geratu den gisan. Eurek aurrekontua hasierako puntu baten modura ulertzen dute, eta ziur dago legegintzaldian zehar denbora izango dutela jangela sozialaren ideia garatzeko, eta handik eta hemendik zerbait ateratzeko enplegura gehiago bideratzeko. Amaitzeko, esan nahi du ez dela euren aurrekontua, ez zaielako dena onartu, baina uste dute eurek eginiko ekarpenekin hobetu dela. Garrantzitsuena —dio—, Errenteriak krisi garai hauetan kudeatu dezakeen aurrekontua izatea da, eta horregatik jarri du bere taldeak bere hondar alea, eta horrexegatik, abstenituko dira.

proyecto presupuestario, aunque es verdad que han quedado pelos en la gatera, lamentablemente el comedor social que planteaban y que ya avanzaba el compañero del PP, se ha quedado ahí, igual que un incremento para planes de empleo. Pero entienden la aprobación del presupuesto como un punto inicial y está segura de que a lo largo de la legislatura tendrán tiempo para desarrollar la idea del comedor social y de rascar lo que se pueda para destinar más al empleo. En definitiva, no es su presupuesto, no se les ha admitido todo, pero sí consideran que se mejora con sus aportaciones. Lo importante a día de hoy es que Errenteria tenga presupuesto, que se pueda gestionar en época de crisis, para eso su Grupo ha aportado su grano de arena y por todo ello, se abstendrán.

* Merino jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du begien bistakoa dela, baina badaezpada —tarteka esaten ez dena oharkabean pasatzen delako— esaten du eurek, Talde Politiko gisa, indar askorekin eta ilusio handiarekin, beti egin duten moduan, lana egin dutela. Eurentzat, alde horretatik, berdin da gobernuan edo oposizioan

* Interviene el Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que piensa que es evidente, pero por si acaso y como a veces aquello que no se dice parece que pasa desapercibido, decir que como Grupo Político han trabajado con gran tesón y con mucha ilusión como siempre han hecho. Tanto da para esto que estén en el gobierno o en la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449601 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

egotea, zeren eta azken xedea aurrekontu bat lortzea delako. Gainera, oro har, uste dute hobeagoa dela "aurrekontu txar" bat izatea ez izatea baino. Hala, gauzak argi antzean izatearren euren buruari mugak ipini zizkioten zuzenketak egiteko garaian, interesgarrienak iruditzen zitzaizkien bakarrak aurkeztuta. Bere iritziz oso ondo argudiatuta zeuden, eta beroriek, batez ere, oposizioarekin eztabaidatu dituzte, baina sekula ez Gobernu Taldeari bizkarra emanda. Haren esanetan berezko balore bat da denek erantzukizunez jardutea ahalik eta aurrekonturik hoberena ateratzeko, ez baitute —iraganean noizbait egin izan den moduan— tentaldirik izan itxurak gorde eta osotasuneko zuzenketa aurkezteko. Hori, bere iritziz, etxeko lana ez egitea baita. Zoritxarrez, ordea, ikusi dute nola zuzenketa batzuk onartu diren eta beste batzuk ez. Aitortzen du zuzenketa zenbait, 1.500 eurokoak eta antzeko gauzak sartu dituztelako, zuzenketak baino kontalari artatsu batek eginak ziruditela. Alabaina, uste du zerupean denetarik egon behar duela eta eurei zapore gazi-gozoa geratu zaie, besteak beste, euren ustez,

oposición, puesto que entendían que el fin último era conseguir un presupuesto, ya que generalmente siempre es mejor un "mal presupuesto" que un "no presupuesto". Por afán de claridad se han autolimitado a la hora de presentar enmiendas, con lo cual han presentado solo aquellas que les parecían más interesantes. Piensa que estaban muy bien documentadas, las han debatido sobre todo con la oposición, pero nunca a espaldas del Equipo de Gobierno. Un valor en sí mismo era que todos se aplicaran con responsabilidad para sacar el mejor presupuesto posible, nunca han caído en la tentación, como en el pasado se ha hecho en algunas ocasiones, de cubrir el expediente y presentar una enmienda a la totalidad, que es una forma de no hacer los deberes. Lamentablemente han observado como el Equipo de Gobierno ha aceptado unas enmiendas y otras no las ha aceptado. Hay que reconocer que había enmiendas que parecían el ejercicio de un contable puntilloso, ya que se metían 1500 euros y cosas así, más que una enmienda digna de ese nombre. Decir que de todo tiene que haber en la viña del Señor y a ellos les queda ese sabor amargo

zuzenketak mamitsuak zirelako, aurrekontu hori hobetzeko pisua eta garrantzia zutenak. Gainera, aitatu den gai zenbait, esaterako, Ingurumenekoa, argi dago garrantzitsua dela, lehen egin izan duten moduan, sustatu, bultzatu eta landu beharrekoa. Horren adibide bat da Eskola Agenda 21, bromak eginez edo, "ba al dago bizitzarik Tokiko Agendatik at" esaten zelako, izan ere, uste baitu Euskadiko herrietatik puntu gehien sartu zuena herri hau zela. Beraz, bada, norbaitek ideia bazuen —ezetz espero du— ingurumena ahaztuta egon dela leporatzea, berak ezetz esan behar du. Besterik da —dio— bakoitza libre dela baliabideak arlo batera edo bestera bideratzeko. Edonola ere, Gobernu Taldeari gogoratu nahi dio ahalegin txiki bat egin zezakeela Landareak eta Abereak Babesteko Elkartearen atxikipena onartzeko, bere aburuz, hori ere

